

JOXE AZURMENDIREN NAZIOA NAZIONALISMO IKERKETEN ARGITAN. ABERTZALETASUN KULTURALAREN DEFENTSA EUSKAL HERRI GARAIKIDEAN

Tesiaren egilea: Haritz Azurmendi Arrue

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Politika eta Administrazio Zientzien Saila

Tesi-zuzendaria: Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga eta Ander Iturriotz Lauzirika

Tesiaren laburpena:

Tesi honen helburua da Joxe Azurmendiren nazioari buruzko ideiak eta Gizarte Zientzietan, bereziki Nazionalismo Ikerketen diziplinan, agertzen direnak konparatzea. Azurmendik ze proposamen teoriko kritikatzan duen eta bere jarrera zeintzuetara hurbiltzen den zehazten da, horrela bere nazio ideia definitzeko. Hain zuzen, tesiaren ondorioa zera da: Azurmendik nazioaren ulerkera propioa duela, Euskal Herriko testuinguruari estuki lotua eta Nazionalismo Ikerketekin zuzenean lotzen ez dena, baina antzekotasun asko gordetzen dituen nazionalismo kulturalaren teoriarekin.

Ondorio horretara iristeko hiru pauso jarraitzen ditu tesiak. Lehenengo, Azurmendiren ideien eta Nazionalismo Ikerketen arteko zubia eraikitzeko, nazioaren inguruko eztabaida teorikoa jorratzen da. Lehen atal horretan, teoria nagusiak (modernismoa, etnosinbolismoa, hurbilpen konstruktibistak...) erreparatu eta giltzarri diren eztabaidak zehazten dira.

Bigarren, Euskal Herriko testuinguru historikoa erreparatzen da, erreferentzia teoriko horiek Azurmendik bizi izan dituen eztabaida konkretuetan bilatzeko. Nazionalismo Ikerketetako ideien parekoak aurkitu dira, adibidez, euskara batuaren eta kultura modernoaren inguruko auzietan, demokratak vs biolentoak oposizioan, nazionalismoaren aurkako diskurtso moralean edo esentzialismo, irrazionalismo eta antzekoen salaketan. Horrela, Azurmendik zuzenean bizi dituen polemiken bitartez, bere ideien eta nazionalismo teorien arteko zubia eraikitzen da.

Behin zubia eraikita, hirugarren, Azurmendik nazioari buruz daukan ulerkera zehazteari ekiten zaio. Horretarako, eztabaida teorikoetan agertzen diren nazioaren inguruko hainbat ideia Azurmendik nola jorratzen dituen lantzen da. Bere obrako gizaberearen ikuspegia, espirituaren metafora edo historiaren filosofiak nazioari buruzko eztabaidan ekarpen esanguratsuak direla erakusten da eta, bakoitzean erakutsitako jarrerak, Azurmendiren nazio ideia zehazten duela.

Horrela, ondorioztatu da, batetik, Azurmendi kritiko dela nazioaren paradigma modernoarekin. Salatzen du ikuspegi modernistan nazioaren ulerkera Estatu modernoaren eraikuntzara mugatzen duela, naziotasunaren aspektu oinarrizko zenbait baztertuz edo gutxietsiz. Bestetik, ikusi da Azurmendik kulturgintzari eta komunitate kulturalari lehentasuna ematen diola nazioaz jarduterakoan. Nazio kulturalaren elaborazio propioa egin du, bere espirituaren metaforatik eta Herderri, Humboldti, Goetheri, Berlini, Cassirerri... hartutako ideietatik. Hortaz, proposatzen duen komunitategintza ere kulturaren oinarritua izango da. Horrek guztiak nazionalismo kulturaletik hurbil dagoen jarrera defendatzera darama, nahiz eta zuzenean korrante teoriko horrekin loturarik izan ez. Azurmendiren jarrera euskal testuinguruari lotua dagoenez, bere proposamena *abertzaletasun kultural* izendatu da.